

SENDABIDE EDO DROGA?

Hego Ameriketako indigenak Mexikon preso, aiahuaska garraiatzeagatik

 JENDARTEA / GAUR8

Jaguar letaginak eta lumak jantzita, Claudino Perez sendagile kolonbiarrak edabe ilun eta lodia zerbitzatzeko bere fededunei, aiahuaska edabea. Bi urteko espetxe-zigorra ezarri zioten Mexikon, Amazoniako herri indigenen antzinako edari hori garraiatzeagatik.

Gorputzaren eta espiritua-
ren ondoezak arindu nahi di-
tuzten kolonbiarrek eta atze-
rritarrek erritu batean edaten
dute Amazoniako landare ha-
luzinogenoekin egindako
prestaketa. Horietako ba-
tzuek Dimetiltriptamina
(DMT) dute, konposatu psi-
koaktibo naturala, baina de-

bekatuta dago Mexikoko le-
gedian, «erabilera bidega-
bea» izan dezakeelako.

2022ko martxoan Mexiko
Hiriko aireportuan atxilotu
zuten Claudino, edo Uitoto
(herriko agintariari deitzen
dioten bezala). Taita aireko ter-

minalean narkotrafikoari au-
rre egiteko indarrek DMTa
aurkitu baitzuten ekipajea,
aiahuaska botiletan sartuta.

NARKOTRAFIKATZAILE LEGEAREN TZAT

«Han, beste gaizkile bat beste-
rik ez nintzen beraientzat, nar-

kotrafikatzaile gisa kataloga-
tzen gaituzte guztiok», kexa-
tzen da 63 urteko sendagilea
AFPk egindako elkarrizketa
batean. Bogota mendebaldean
dagoen La Mesa udalerrian el-
kartu ziren berarekin.

Perezen abokatuaren arabe-
ra, Mexikoko fiskaltzak 25 ur-
teko zigorra eskatu zuen ha-
ren kontra, «narkotikoak
herrialdean sartzeagatik», bai-
na epaile batek amaitutzat
eman zuen prozesu hori, au-
dientzia batean artxibatuz,
atxilotzeko arrazoirik aurkitu
ez zuelako.

Baina Perezen kasuak ezta-
baida piztu zuen indigenen
tradizioen kontserbazioaren
eta drogen aurkako gerra ba-





satiaren artean; zer den zer eta mugapenaren inguruan batez ere. Azken urteotan, beste zortzi pertsona harrapatu dituzte arrazoi berberengatik, Kolonbia, Peru, Brasil eta Mexiko inguruan batez ere; nahiz eta gero askatu egin zituzten.

EREMU GRISA

Mexikoko legearen arabera, DMT-a «osasun publikorako arazo bereziki larria» da. Adituek mendekotasuna duenik egiaztatu ez duten arren, substantzia psikoaktiboak debekatura daude Estatu Batuetan, Kanadan eta Europako herrialde batzuetan.

Perezek murrizketa horiei uko egiten die, sendagile gisa munduan zehar ibiltzen baita aiahuaskarekin. Bere esanetan, gaixotasun larrien tratamenduei lotutako minak tratatzeko edo adikzioak uzteko baliatu daiteke aiahuaska. Kolonbiako herri indigenetan, esaterako, 12 urtetik gorakoen %84k erabili du aiahuaska medikuntza tradizional gisa, zifra ofizialen arabera.

Julian Quintero drogen inguruko Gizarte Ekintza Teknikoaren GKEko zuzendariaren esa-

Claudino Perez
sendagilea aiahuaska
sendagaiarekin beraien
errituala egiten, kartzela
zigorra bete ostean.
Luis ACOSTA | AFP

netan, «eremu gris bat dago», eta bere ustez Latinoamerikako zenbait eremu arautu beharko lirakeke, «komunitateen antzinako erabilerari eta erabilera zeremonialari begira».

Hala ere, soziologoak azpimarratzen du edari horietako batzuk «testuinguru erritualetatik ateratzen» ari direla, «esperientzia espiritualetara itzultzeko mundu mailako joera» dagoelako. Bere ustez, beharrezkoa da legez arautzea: «Kontuan hartu behar da nortzuk diren aiahuaska modu arduratsuan erabili ahal dutenak, hori nola egiten den dakitenak; eta ez dela desbideratzen ari aisialdiko salmenta komertzial baterako».

Epaille mexikarra aiahuaskaren milaka urteko erabileraz

konbentzitzeko, Kolonbiako gobernu independentistak Mexikora bidali zituen Perezen jarra babestu zuten akademikoak. Gustavo Petro presidenteak aitortu zuen edabea probatu zuela. Eta Perezek kontatu zuen Mexikora 30 aldiz baino gehiagotan joana zela dagoeneko.

Erakundeek Andres Manuel Lopez Obrador Mexikoko presidentearen drogen aurkako politika kritikatu dute, «narkotrafikatzaileekin bigunegia» izateagatik.

HEROINAREN PAREKO

Mexikon gertatzen ari denaren kontrara, Perun aiahuaska herrialdearen ondare ez-materiala kontsideratzen da. Mexiko Hiriko antzinako medikuntza lokal batean, bata eta

kapela zeremonialak jantzita zegoen Lauro Hinostroza, Peruko Shipibo-Konibo herri amazoniarreko xamana, lanean ari da martxoan askatasuna berreskuratu ondoren Perura itzultzeko dirua lortzen duen bitartean.

71 urterekin, ez du ulertzen zergatik amaitu zuen burdin hesien ondoren. «Sendaketa landarea da aiahuaska», aitoritzen du. Zigarro bat piztu eta ontzi txiki baten gainera botatzen du kea; gero, zupada batzuk eman, eta dantzan eta kantuan hasten da.

«Egia esan, gu pobreak eta sendagileak izateagatik atxilotzen gaituzte, gure delitua indigena izatea da», azpimarratzen zuen xamanak, eta indigena izanagatik hainbat alorretan pairatzen duten kriminalizazioa ere aipatzen du.

Aipaturiko operazio horiei buruzko dokumentu ofizial publiko bakanen artean begiratuta, Mexikoko Senatuko Gai Indigenen Batzordearen irizpen batek argitaratu du propietate psikoaktiboak dituzten antzinako landareak heroinarekin eta kokainarekin parekatu direla.

Claudiok salatzen du Mexikoko kontrolean zein osteko zigorrean gaizkilea bailitzan tratatu izan dutela, eta bera ez dela gaizkilea. Legeak moldatzea eskatzen du sendagileak

Julian Quintero soziologoak azaltzen du Latinoamerikan pil-pilean dagoen eztabaida dela komunitateen zeremonietarako erabilitako substantzien eta drogaren artekoa